

Liburutegiak XXI. mendeari begira

b

OIHANA ARANBURU / ARANTZA MARISKAL

b

Sarrera

Historian zehar aldaketa asko pairatu dituzte liburutegi, artxibo eta dokumentazio zentroek. Garai batean ideiak eta gertaerak idazteko soportre berri eta iraultzailea papiroa izan bazen ere, gaur egun teknologia berriak ditugu egunero eskuartean. Ordenagailu baten aurrean eserita, Alexandriako liburutegiak zituen 700.000 liburukiak kopuruz txiki geratu dira, etxetik lasai eta edozein orduan kontsultagarri daukagun informazio bolumena zein den ikusirik.

Egun, *lehen mundua* deitzen diogun herrialde garatuetan noski, arazo nagusia ez da gizakiak irakurtzen ez jakitea, edo liburutegiak erabiltzeko eskubiderik ez izatea; egungo arazo nagusi bat informazio bolumenak sortzen du, hau da, informazio ugartasuna da arazoa. Informazioz inguratuta bizi garen gizarte honetan arazoa dugu maiz, behar dugun informazio kopurua baino gehiago eskuratzen dugunean edo/eta sarri behar dugun informazio hori falta dugunean. Honen ondorioz gizakiok desorientazio egoera bati aurre egin behar izaten diogu behin baino gehiagotan.

Bizi garen herrialde garatu honetan, teknologia berriak erabat integratuak daude gure bizimoduan, eta guretzat ona den etekina ateratzen diegun bitartean benetan

W Oihana Aranburu eta Arantza Mariskal Xenpelar
Dokumentazio Zentroko dokumentalistak dira.

atseginak zaizkigu. Teknologia berri hauek eskura jartzen digute hainbat aukera, gero eta makina potenteagoak, gero eta programa gehiago, gai hauetan adituak ez garenontzat terminologia ulertezina... Hau guztia ez dago denon eskura, gizarte sektore ezberdinak ere hor daude eta ondorioz analfabeto zibernetiko multzo handi bat sortzen ari da.

Egia da baita ere, behar hori daukanak, nola erabili ikasiko duela, ikasteko medioak badaudelako; baina egia da ere Estatu espainiarrean, irakurtzen ez dakiten edo juxtu oinarrizko testuak irakurtzeko gai diren biztanleen kopurua oraindik ere handia dela. Bestalde, gero eta gehiago dira etxean ordenagailua dutenak. Era berean, Internet erabiltzaileak ere egunetik egunera gehituz doaz.

Teknologia berri hauek lanbide guztietan eragin zuzena dute; arrantzaleak satelite bidez gidatzen dira itsasoan, abeltzainek txipak jartzen dizkiete animaliei, bideokonferentzien bidez egiten dira bilerak Alemaniara joan gabe...

Une honetan teknologia berrien eragina gehien pairatzen ari den langintza liburuzain, artxibozain eta dokumentalisten eguneroko zeregina dela esatea ez litzateke gehiegizkoa.

Ez da batere erraza aipatzea gure lanean egunero dau den aldaketak eta egitera behartuta gauden moldaketak zeintzuk diren. Kontuan izan behar dugu gure artean denak ez garela berdinak, zentro bakoitzak helburu ezberdin batzuk bete behar dituela, erabiltzaile ezberdinak ditugula, medio ekonomiko eskasak gustatuko litzaigukeen mailara iristeko, eta abar. Baina testu honetan zertzelada orokor batzuk besterik ezin izango ditugu aurkeztu, etxean beheko sua erabiltzetik mikrouhin labea erabiltzerako jauzia baino handiagoa ematen ari baikara liburutegi eta dokumentazio zentroetan.

Informazio gizartea eta informazio munduko profesionalak

Informazio gizarteaz mintzatzen garenean, informazioa sortzeak, manipulatzek eta erabiltzek aberastasuna

eragiten duela esan nahi du, gizarte nekazarian nekazari-tzak sortzen duen aberastasunak bezalaxe edo industri gi-zarteak sortzen duenaren pareko.

Lehen ere informazioa giza aktibitateetan osagarri in-portantea izan bada ere, gaur egun informazioaren ingu-ruan sortzen diren aberastasun eta aurrerakuntza especta-tibak ez dira inoiz lehen ikusi. Informazioaren eta komu-nikazioaren teknologien eskuragarritasunak ahalbidetzen du hau. Horrela, telekomunikazio sareek eta sistema in-formatikoek, testu, irudi eta soinuak kopuru handitan erabiltzeko aukera eman dute, eta ondorioz aktibitate hauek guztiek aberastasuna sortzea posible egiten dute, ohiko iturrien pare. Informazio bolumen hauen mugi-menduari begira, ezinezkoa zaigu guztiari unitate bakar batean heltzea, beharrezkoa da bereziki prestatutako pro-fesionalak egotea, informazio kopuru izugarri horren bar-ruan aise mugitzeko. Profesionalen beharra dugu behar dugun hori eskuratzeko bideak erakutsiko dizkigulako, denbora aurrezteko, zarata kentzeko eta behar dugun hori zehazki eta behar dugun momentuan jasotzeko. Laburtuz, informazioa erraz eta azkar eskuratzea beharrezkoa dugu; honek eskura ditugun errekurtsoen probetxua eta razio-nalizazioa suposatzen du, hau da, egun ditugun aurrekon-tuekin giza errekurtsu, errekurtsu ekonomiko eta teknolo-gikoak ongi erabiltzea da.

Informazio kudeatzaile berriak

Egoera berri honi erantzun ahal izateko azken hamar-kadan aldaketa ugari ikusi ditugu profesionalok. Hasteko eta nola ez, Bibliotekonomia eta Dokumentazio irakaskun-tza erabat aldatu da Estatu espainiarrean. Profesionalen for-mazioa izan da kezka nagusietariko bat gure artean, eta ho-nek unibertsitate mailako bigarren zikloaren planteamen-dua ekarri du. Egun hamalau zentro ezberdinetan burutu daitezke Bibliotekonomia eta Dokumentazio ikasketak (Euskal Autonomia Erkidegoan aukera hori ez badago ere).

Lizentziatura ikasketak bost urte besterik ez baditu Estatu espainiarrean, begi-bistakoa da gure lanean espe-

ziazazio ezberdinek ekarri dituzten onurak. Horrela, zentroen kudeaketan, dokumentazio espezialduan, informazioaren teknologian, erakundeetako dokumentazioaren kudeaketan, ikerketan eta irakaskuntzan bereziki formatutako profesionalak gehitu ditugu gure lanean. Langile hauen prestaketan, aurreko programetako ohiko ikasgaiez gain eta informazio gizarte honi erantzuteko, gai berriak ikasten dira: besteak beste, dokumentu eta informazio sistema hipertestualen diseinua, direktorio eta bilaketa motorren funtzionamendua Interneten, dokumentu kudeaketan sistemak, Interneteko datu base eta informazio sistemak, patrimonio dokumentalaren zainketa eta kontserbazioa.

Euskal Autonomia Erkidegoan, profesional gehienak jatorrian beste adarretatik datoz (Historia, Filologia...), gure unibertsitateak horrelako titulaziorik ez baitu eskaintzen. Horrela, bere funtzioak ongi bete ahal izateko, profesional talde hau bere kabuz eta esfortzu handiz eguneroko lan honetarako prestatzen ari da.

Oro har, bibliotekari eta dokumentalistontzat gure lanean aurrera egin ahal izateko eta eguneroko topatzen ditugun erronkei erantzun ahal izateko, formakuntza jarraia ezinbestekoa da.

Hala ere gizarteak informazio munduko profesionalez duen irudia eta honekiko dituen konnotazio negatiboak ez ditugu ahantzi behar (tradizioa, kontrola, ordena, arauak...). Hau guztia gure formazio jarrai honetan kon-tuan izan behar dugu gure informazio kudeatzaile irudi berriaren barruan. Hau aldatzen ari da, erabiltzailea profesionalarekiko gero eta hurbilago dago, zentroko kolezioa ez da propioa lehen maiz gertatzen zen bezala, gure lanean katalogazioa ez da helburua, bitartekoa baizik...

Aldaketa hauek guztiek ez dute esan nahi teknika eta teoria batzuk alde batera utzi behar ditugunik, errekonbertsio baten beharra daukagula baizik, eta horretan ari gara lanean gainera.

Gizarte berri honetan informazio kudeatzaileak informazioaren sinergia profitatzearen arduradunak gara. Honek lanbidearen beraren kontzeptuaren berrazterketa

bat suposatzen du. Ez da ikuspegi teknologikotik bakarrik egokitze bat eskatzen duen egoera, antolakuntza mailan ere badago zeregina.

Informazioaren kudeatzailean ziber rol berria

Internet ez da bibliotekari eta dokumentalisten eremua bakarrik ezta bakarra ere, ez da gure lanbidearen berezitasun bat, nahiz eta gure lanarekin oso loturik egon. Guztien eta inoren eremua da Internet. Hau horrela, beharrezkoak ditugu besteengandik bereizten gaituzten irtenbideak planteatzea.

Liburutegiek¹ gizartearen aurrean beraien benetako balioa azaltzen (saltzen) hasi behar dute, arazoak konpontzeko gaitasuna agertu behar dute, egoera ekonomiko berr honetan beharrak asetzen jakin behar dute.

Hona iritsita, aztertu beharra dago Internetek zein aukera ematen dizkion informazio kudeatzaileari. Nola labur ditzakegu gure eguneroko lanak sare honetan? Gure lanaren helburu nagusia, interesgarria eta kalitatezkoa den eza-gueradun informazioa sortu eta integratzea da, beti ere erabiltzailearekiko interaktibitatea pizteko bitartekoa izango delarik, webguneak etengabe eguneratu eta dinamizatu direlarik, eta, beti ere komunikazio egoki baten mesedetan, erabiltzaileak identifikatuak izango direlarik.

Bibliotekari eta dokumentalistak, egun, benetako bilatzaileak gara. Guk dakigu zer dagoen sarean, bere erabileran nola antolatuta dagoen, kalitatezkoa den edo ez... Ezagutzaren kudeatzaileak garenez, informazio egokia nola optimizatu, eta erabili ahal izateko sarbidea nola erraztu jakin beharko dugu.

Informazio zentro berriak

Aldaketa hauek, neurri batean, lan batzuen bazterketa suposa dezakete beste lan berri batzuen alde (beti ere sistematizazioa eta koherentzia galdu gabe). Egun bibliotekak *informazio birfindegiak* dira: produktua (hau da, informazioa) bere horretan «landugabe» heltzen da eta

«ezagutza» bihurtzen dugu. Komunikazio guneak dira, bertan informazio aukeraketa egin behar da, prozesatu eta ondorioz ezaguera eta informazio berri gehiago sor dezan moldatu eta zabaldu.

Informazio kudeatzaileok informazio erabileraren arduradunak gara. Honek aldaketa garrantzitsua suposatzen du atzera begira jartzen bagara. Historikoki liburutegietan eremuak itxi egin dizkiogu gizarteari, azken honi arreta gehiegi egin gabe bizi izan garelarik. Orain *informazio birfindegiak* garenez, kontsumitzaileak edo/eta erabiltzaileak behar duen ezagutza prestatzen aritzen gara. Cronin-ek dioen bezala, ezagutza kudeatzailearen zereginak

erakundearen kapital intelektuala lanean jartzea eta bere errekurtsoen konfigurazioa eta esplotazioa optimizatzea da. Era berean, ingurune sortzaile bat eragin eta bultzatu behar da, erakunde barneko informazio eta komunikazio elkartrukaketa bultzatuz.

Liburutegia eta teknologia berriak

Informazio eta telekomunikazio merkatuen garapenak liburutegietan zerbitzu berri batzuk ekarri (ekarriko) ditu. Ondorioz, liburutegien erabiltzaileekiko zerbitzuen filosofian aldaketak etorriko dira: liburutegi digitala helburu bat izan daiteke, liburutegiko edukiak eskuragarri egon daitezen bideak erraztuko dira eta dokumentuen garrantzia identifikatzeko moduak ezarriko dira.

Honek eragina du ezagutzen kudeaketaz arduratzen direnen gain (informazio kudeatzaileak) eta informazio hau erabiltzen dutenen artean (erabiltzaile edo/eta kontsumitzaileak).

Hau zabalegia izan daitekeenez, teknologia berriek (batez ere Interneten oinarritutakoek) eta liburutegiek izan ditzaketen harreman orokorrak besterik ez ditugu aipatuko, aurrerago esan bezala egoera eta errealitate bakoitzak bere egokitzapen berezia behar izaten baitu.

Teknologia berriekin sortzen diren harremanak bi norabidetan defini daitezke:

- Liburutegiek teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideak nola erabili.
- Liburutegiek teknologia berrien bidez beren zerbitzuak nola eskaini.

Hau guztia aipatzerakoan, oinarrian liburutegi hauen ohiko zerbitzuen nondik norakoak jarraituko ditugu: eskurapena, katalogazioa, erreferentzia, dokumentuetara helaraztea eta barne kudeaketa.

Dokumentuen eskuratzea

Sarean loturik dauden liburutegiek, hau da, zentralizatutako sistema baten barruan funtzionatzen dutenek, zentro bakar baten bidez lortzen dituzte beraien fondoak (liburutegi publiko orokor baten sare sistemaz hitz egingo genuke kasu honetan), eta bestelako dokumentuak eskuratzeko aurrekontu txikia izaten dute. Hala ere, Internet beti izango da zentralizazio prozesu hau azkartzeko bide bat.

Eskurapena azkartzeko interesgarria eta baliozkoa da Internet. Desideratak (erabiltzaileen eskaerak eta iradokizunak) eskuratzeko, liburutegiak web orria edukiz gero, noski medio egokia da. Honen bidez erabiltzaileak liburu berriak eska ditzake, liburutegira posta elektronikoa erabiliz hurbildu. Ondorioz, liburuzainak desiderata guztiak antolatuak jaso ahal izango ditu, beharrezkoak diren balorazioak egin ahal izateko.

Gai honetan Internetek duen abantaila nagusietako bat, informazio bibliografikoa eskuratzea ohiko bideetatik baino askoz merkeago eta azkarragoa izatea litzateke, dokumentu inprimatuaren identifikazio, aukeraketa eta eskuraketa arinago egiten baita.

Gaur egungo komertziozko bibliografia gehienek (ISBN kasu, <http://www.mcu.es/bases/spa/isbn/ISBN.html>), argitaletxeek, banatzaileek, liburutegiek, baita administrazio publiko gehienek ere, web orriak dituzte beraien informazioa eskaintzeko. Bide honi esker eskaerak egiteko informazioa azkarrago eskuratzen da eta eskatzeko bideak errazten ditu. Kasu batzuetan, eta zerbitzu interesgarria da hau, nobedadeak posta elektronikoz igortzen dituzte.

Internet eskaerak eta erosketak egiteko modu azkarrena dela ez dugu ahantzi behar.

Helbide interesgarri batzuk hauek izan daitezke adibide modura:

- Abacus kooperatiba:
<http://www.abacus.es/default.asp>
- Euskal fondoa interesatzen bazaigu:
<http://www.jalgi.com/zabaltzen>
- Fonoteka materiala:
<http://www.fonomusic.es> eta <http://www.bol.com>
- Haur eta gazteentzako fondo espezialdua:
<http://www.petitprincep.com>
- Amazon dugu sarean dagoen liburudenda birtualik handiena: <http://www.amazon.com>

Katalogazioa

Fondoaren katalogazioari buruz, dokumentu tradizionalekin lan egiterakoan bi egoera aurki ditzakegu.

Alde batetik, gure katalogazio lanarentzako baliagarria da zentro katalogafikoen produktuen kontsulta egitea, hau da, katalogoen, bibliografia nazionalen eta halako produktuen kontsulta egitea. Hauen bidez katalogazio lanetan sortzen zaizkigun hainbat zalantza, autoritateen kontrola eta abar argitzeko bide bat aurkituko dugu. Euskal Autonomia Erkidegoan ez dugu hau egiteko ahalbiderik, ez baitugu guztientzat oinarri izango den zentro bat (liburutegi nazionala edo guztientzat erreferentzia izan daitekeen katalogazio zentro bat).

Bestalde, erregistroak deskargatuz edo kopiatuz egiten den kopia bidezko katalogazioa gero eta gehiago ikusten da. Gure liburutegietako langile falta dela eta, maiz baleko irtenbidea izan daiteke hau, nahiz eta katalogazio lana neurri batean horrela egiteak ez duen izan behar langile faltagatik, baizik eta lana hobeto egin nahi izateagatik.

Aipamen berezia merezi du sarean eskuragarri dauden dokumentu elektronikoen kontrol, klasifikazio eta eskuratzeak. Dokumentu hauen katalogazioak, katalogazio lana egiteko moduaren eta liburutegiko langileen beraien

prestakuntzaren aldaketa ekarriko baitu. Kasu honetan, interesgarria da zenbaitzuentzat errekurtso hauek antolatzeko sortu eta osatzen ari diren webgunek nolabait katalogatzeko modu bat direnaren teoria.

Erreferentzia

Interneten garapenak bibliografia eta erreferentziako informazioaren zerbitzuetan ekarri ditu ondorio handienak gure lanbidean, liburutegiak sarean jartzeko abiapuntua izan direlako bereziki.

Argi eduki behar dugu Internet erreferentziako informazioaren iturri indartsu bat dela, galdera ezberdinei erantzuteko ahalmena duela eta erabiltzailea bideratzeko aukera izugarriak eskaintzen dituela, nahiz eta txanpon honen bestaldean kalitate eskaseko informazio asko ere sortu.

Baliteke, gai konkretu honetan, datozen urteetan liburutegien eginkizuna nodo lana egitea izatea, informazio iturriak eta erreferentzi iturriak kontrolatu, aukeratu eta sailkatzen jardutea.

Erabiltzaileen galderei erantzuteko gero eta tresna erabilgarriagoa da posta elektronikoa, galderak azkar eta merke helarazteko medioa baita. Ondorio zuzen bat telefono bidez egin beharreko lanen biderketa bat da. Zerbitzu hau aurrera eramateko hainbat sistema badago ere, puntako biak aipa genitzake: bata, erabiltzaileari helbide elektronikoa soilik ematea eta bestea, eskaerak egiteko formulario konplexuak betearaztea. Azken sistema hau gero eta maizago topa genezake galdera errazei erantzuteko. Bestalde, ez da hain arrunta informazioaren hedapen selektiboa deritzoguna (DSI) Interneten erabiltzeko momentuan. Saiakera gutxi daude zerbitzu hau aurrera eramaterakoan, normalean, ordainketaren truke izaten delarik.

Dokumentu eskuratzea

Gure eguneroko lanean Internetek eskaintzen duen abantaila nagusietako bat dokumentuaren eskuratzean dago.

Interneten bidez katalogoen kontsulta munduko edozein tokitatik, etxetik, lanlekutik... egiterik dago; dokumentu bat existitzen dela eta eskuratzeko zein aukera dauden jakitea, berrikuntza nagusienetarikoa bat dela esango nuke.

Berez liburutegi publiko bati ez badagokio ere, gero eta maizago era honetako zentroek ASCII edo irudi osoko formatuko dokumentu elektronikoak eskuratu ahal ditzakete, kasu batzuetan beraien erabiltzaileen beharrei erantzun ahal izateko; literatura grisa eta aldizkako argitalpenen kasuan, esaterako.

Barne kudeaketa

Liburutegia informatizatua egonez gero, dokumentuen zirkulazioa, erreserbak eta erreklamazioak aise egiteko modua ahalbidetzea erraza da, erabiltzaileak liburutegiko karneta badauka hau guztia arinago egingo delarik. Liburutegiarekin kanpotik komunikatu bagaitezke, formularioak bete eta prestamoko mostradoretik pasa gabe, posta elektronikoz jaso genitzake erreserbak, atzerapenak, infrazioak eta abar. Honek eguneroko zerbitzuen kudeaketan abantaila handia suposatzen du.

Modu berean eguneroko lan asko azkartuko genituzke: dokumentuen erreserba edo/eta berrikuntza erabiltzailearen aldetik, erreklamazioak eta erreserbatutako liburuaren eskuragarritasuna liburutegiko langilearen aldetik, katalogoen kontsulta eta dokumentuen egoeraren araberako eskaerak edo erreserbak egiteko posibilitatea...

Era berean liburutegien arteko prestamoan eta dokumentuen eskurapenean abantaila ugari ekarri ditu Internetek. Hasiara batean liburutegiek prestamoaren eskaera egin ahal izateko helbide elektronikoa besterik ematen ez bazuten ere, egun formulario batzuen bidez liburutegiek beraien eskaerak egin ditzakete zuzenean. Formulario hauek, normalean, liburutegien arteko prestamoen baldintzak aipatzen dituzte. Estatu espainoleko helbide elektronikoak nahiz dokumentuen eskurapenerako oinarrizko arauak ikusi nahi izanez gero, ondorengo helbidea erabil dezakegu: <http://www.upf.es/bib/pinter/index.htm>

Liburuzain eta dokumentalisten lanak zeregin administratibo ugari ekartzen ditu. Gehienetan taldean lan egin behar izaten da, bilerek eta telefono deiek denbora asko kentzen dutelarik. Internet bide egokia da hainbat lan errazteko. Horrela, intranetek abantaila asko ekar ditzake leku fisiko ezberdinetan egon daitezkeen lantaldeetan (barne kontsultak, lanen antolakuntza, txandak, ordutegiak...).

Liburu eta liburutegi digitalak

Historian zehar gizakiak liburu hartu du datuak eta unibertsoa ulertzeko ezagutza erregistratu, bildu, antolatu, kontserbatu, erabili eta zabaltzeko ardatz edo bitartekotzat.

Erregistratu, bildu, antolatu, erabili eta banatzeko sistema Erdi Arotik aurrera osatuz joan zen eta inprentaren nahiz ilustrazioaren ideien bilakaerarekin indartu zen. Sakeleko liburuekin eta aldizkarien espezializazioarekin ohitugabeko ospea lortu zuen XX. mende erdialdera, aurretik pentsaezina zen hedapen masiboa izan zuelarik.

Bestalde, azken urteotan, behin eta berriz entzuten da liburuak bizitza laburra daukala gizarte berri honetan eta telekomunikazio sareen artean itoko dela. Oraingoz historia zein den badakigu, profeta guztiek huts egin dute, eta inprimatua da oinarrizko medioa ezagutza erregistratu, bildu, antolatu, kontserbatu, erabili eta zabaltzeko.

Testu digitalaren iraultza 90eko hamarkadan gertatzen da eta web erako adierazpideak dira ezaugarri nagusiak. Bide horretan testu digitalari, klasifikazio eta hipertextu bidezko nabigazioa gehitzen zaio, baita irudi, soinu eta mugimendua ere. Honek profeta berri batzuk sortzen ditu berriz ere, lehengo sistema guztia sistema digital baterantz doala aldarrikatzen dutenak.

Argitalpen digitalek ez dute ohiko argitalpenen e-dukтура eta irakurketa modua.

Ohiko argitalpenak digitalean antolatzen direnean, kontuan izan beharra dago dokumentu hauek ez direla

dokumentu linealak bezalakoak (ohiko liburu, aldizkari edo egunkari). Ohiko inprimaki bat lineala da, eta egile eta editoreek aurrez erabakitako irakurketa forma batera lotzen dute irakurlea. Sare komunikazioaren bidez, erabil-tzaileak aukera desberdinak ditu eta irakurketa aukera anitzen aurrean dago, ez baitago dokumentu bakar bati lotua, baizik eta dokumentu askoren edukien arteko erla-zio era asko ditu hautagai.

Liburutegi digitala

Telekomunikazio sareen gizarteratze eta komertziali-zazioaren inguruan informazio ugari sortu zen teknologia berri hauek liburutegietan izango zuten eragina zela eta. Positiboki ikusten zen gaia, eta antolakuntza oinarrian jar-riz, informazioa eskuratzeko modu zabal bezala liburute-gia ikusten zen. Horrela, liburutegi eredu berri honek in-formazio kopuru adierazgarri, zehatz, fidagarri eta han-diago bat eskuratuko luke. Liburutegi eredu hau definitze-ko esaldi ezberdinak erabili izan dira: «liburutegi birtua-la», «liburutegi elektronikoa», «hormarik gabeko liburute-gia», eta azken aldian «liburutegi digitala». Hitz hauekin esan nahi da liburutegi hauek eta eskaintzen dituzten zer-bitzuak teknologia eredu berri baten ondorioz sortutakoak direla, ez besterik. Liburutegi digitala terminoa azkena sor-tu den kontzeptua da, azkenaldiko jardunaldi eta hitzal-dietan erabiliena dena.

Egungo gizartean liburu eta aldizkari zientifikoak era-biltzen dira nagusiki irakaskuntza eta ikerketa munduan ezagutzak erregistratu eta zabaltzeko. Adierazgarria da az-kenaldian, arlo akademiko honetan, dokumentu digitalen erabilpena gero eta handiagoa izatea, ohiko paperezko li-buru eta aldizkarien kaltetan.

Dokumentu digitalen produkzioaren gorakadaz gain gero eta dokumentu digital mota ezberdin gehiago azal-tzen ari dira. Liburutegien zerbitzuak honetara egokituz bide desberdinak hartuko dituztela espero da.

Liburutegi digitalak, informazio teknologia berrien eta telekomunikazioen erabilpen intentsiboa egiten duten

erakunde bezala definitzen baditugu, ondorengo ezaugarriak izango ditu:

- Zerbitzuak antolatzeke modua: telekomunikazioen bidez lan egiteko prestatuak egongo dira.

- Erabiltzaile eta liburuzainen arteko banaketa fisikoa gertatuko da.

- Telekomunikazioen bidez liburutegi zerbitzua eta informazio dokumentala lortzeko aukera.

- Nabigaziorako tresna izango diren eta edukien kontsulta egin ahal izateko dokumentu digitalak sailkatzeko eta kolekzioak osatzeko medio berriak sortuko dira.

- Liburutegia antolatzeke telekomunikazio eta informazioaren teknologian ezagutza oinarri izango diren diseinuak, antolakuntza eta zerbitzuak martxan jarriko dira.

- Telekomunikazioen bidezko dokumentu digitalen transferentzia eta dokumentuaren berehalako eskuratzea onartzen duen sistema. Era berean liburutegien arteko prestamoa birplanteatzera behartzen du honek (egile eta editoreen eskubide eta interesak bat jartzea ezinbestekoa da, beti ere dokumentu eta informazioaren zirkulazio publiko librea errazteko helburuarekin).

- Informazioa erabiltzailearengana hurbiltzen da. Hau eraldaketa garrantzitsu bat da espazio, denbora, erabilpen ekonomiko eta beste hainbat harremani dagokienean. Baliteke nagusia erabiltzailea dokumentuaren aurrean autonomoa dela izatea; ez dago bitartekaririk, ez ordutegi ez eta muga fisikorik ere.

- Orijinala aski da eta une berean erabiltzaile ezberdinek erabiltzea posiblea da.

- Errekuperaziorako sistemak pentsamendu eta eredu mentaletatik hurbilago egoten dira. Erabiltzailearentzat informazioa eskuratzea askoz ere errazago da.

- Dokumentu dinamikoak dira, hau da, edozein dokumentu digital behin eta berriz berralda dezakegu, eguneratu, beste batekin bat egin, ezabatu, eta abar.

- Inportanteena, momentu bakoitzeko produkzioak eta informazioa erabiltzaileen eskura jartzen dituela da. Erabiltzailea informazio sortzaile izan daiteke gainera, eta ez da lehen bezala erabiltzaile pasibo soila izango. Modu

honetan sortzen dena, nahi izanez gero, momentuan gu-txi batzuen edo milioika pertsonen eskuetan jar daiteke.

Azken finean biblioteka digitalak eta ohiko bibliotekak helburu berdinak dituzte (dokumentuak aukeratu, eskuratu, analizatu, erabiltzaileen eskura sailkatuta jarri, gizar-tean horiek erabil daitezzen sustatu...).

Honek guztiak liburutegi digitala, sarean konektatuta informatzeko, informatua egoteko eta ez dakiguna ikaste-ko izango den utopia batean bihurtzen du. Utopia hau modu ezberdinetan ikus dezakegu, baina agian utopikoe-na, liburutegi guztiak sarean lotzen dituen eta gizakiaren produkzio dokumental guztia linean edozeinen eskura jartzen duena da. Ideia honek liburu klasikoan digitaliza-zioa bultzatu du, eta inprimaki ezberdinak soporte digita-lera pasatzea, normalean inongo gehiketa eta aldaketarik gabe (gauza bera baina digitalean, liburu bera baina digi-talean).

Hala ere ez da ahantzi behar Internet informazioa al-mazenatu, errekueratu eta transmititzeko sortu zutela, eta ez dokumentu antolakuntza sistema lez; beraz, ezin da In-ternet lehen aipatu dugun liburutegi digital handi hori be-zala planteatu.

Liburutegiak ez dira ordenagailuz, liburuz eta egoi-tzaz bakarrik osatzen, eskaintzen dituzten zerbitzuak dau-de oinarrian. Hortaz, zerbitzu horiek antolatu eta zabal-duko dituzten giza errekursoak ezinbestekoak dira.

Inprimakien bidezko banaketa sistemek eskurapena eta prestamoa zailtzen dute. Dokumentu bat existitzen dela dakigun momentutik eskuratu arte fase ezberdinak erretzen baititugu: dokumentua nork produzitzen duen jakin, lokalizatu eta eskuratu. Linean argitaratzen denare-kin ez da hainbeste lan egin behar, zuzenean dokumen-tua eskura baikenezake.

Hala ere, linean egindako publikazioak badakar beste arazo bat: informazio adierazgarria eskuratzea zaila izaten da alde batetik, eta bestetik dokumentu eskuragarriak ko-puruz asko handitzen dira. Ondorioz, erabiltzailea ez da gustura geratzen kalitate eta erabilgarritasun eskaseko da-tu asko jasotzen baitu.

Bestalde, liburutegi digitalaren zerbitzuak irakaskuntza eta ikerketa mundura egokitu ditzakegu, komunikazio sareek irakaskuntza eta ikaslearen arteko elkargune bat osa dezaten eta dokumentu digitalen diseinu, konstrukzio eta difusiorako medio bat bihur daitezten.

Liburutegi digitala ikerketa eta irakaskuntza mundurako laguntza izan daiteke ikasketa planen informazioa zabaltzeko (programak, egin beharreko lanak, berriak...), irakaskuntza materiala erabili ahal izateko (artikuluak, datu baseak, multimedia materiala...), ikerketarako (proiektuak, aurrerakuntzak), Interneten eskura dagoen materiala kontsultatzeko loturak jarritz. Modu honetan liburutegi digitalaren eguneratzea geldieztina izango da eta bertan ikasleak bere lanak eta ikasketak egin ahal izateko behar-ko lukeen guztia eskura izango luke.

*P*reserbazio eta kontserbazioa

Paperezko dokumentuen bizitza luzea denez, ezagutzen ditugu kontserbaziorako beharrezkoak dituen baldintza eta eskaerak. Dokumentu elektronikoek aldiz, problematika berezia, berria eta neurri batean ezezaguna aurkezten digute.

Oinarrizko hiru elementuk osatzen dute dokumentua: edukia, esturkturak eta kontestua. Paperezko dokumentuetan egitura hau argia da, paper berean agertzen da guztia. Dokumentu elektronikoak baditu berezitasunak paperezkoarekin konparatuz gero. Erabiltzaileak ezin du dokumentua zuzenean kontsultatu, interfaze elektronikoen baten beharra dauka, hau da, makina baten beharra dauka dokumentua irakurri ahal izateko. Lehen aipaturiko elementuak (edukia, esturktura eta kontestua) modu ezberdinean eskuratzen dira. Edukia, soportean magnetiko edo optiko batean gordetako kode binarioan dagoen karaktere kate bat da; esturktura, softwarearen arabera, lanean ari garen fitxeroan edo beste batean egongo da; eta kontestua (dokumentu sortzailea, hartzailea, sinadura) zerbitzari bakoitzaren helbide liburuan, datu base ezberdinetan edo doku-

mentu elektronikoen kudeaketa sistema korporatiboan egon daiteke. Dokumentu informatikoan disoziazioa sortu da informazioaren eta soportearen artean. Ordenagailua martxan dagoenean, dokumentu bakoitzaren forma eta eduki bat ikusiko dugu; edukia bera izan daiteke, baina forma softwarearen eta periferikoen arabera aldatuko da.

Honi guztiari dokumentuen beste berezitasun batzuk gehitu behar dizkiogu. Dokumentuak konposatuak (erabiltzailearentzat dokumentu bakar bat dena, dokumentu txikiagoz osatzen da, eta momentu batean dokumentu hori sortzeko elkartu egiten dira, pantailan ikusten dugun hori sortzeko), banatuak (dokumentua osatzen duten fitxero ezberdinak, memoria unitate bakar batean edo memoria unitate ezberdinetan egon daitezke, ordenagailu bakar batean edo ezberdinetan, sare batean edo sare ezberdinetan) edo/eta dinamikoak (dokumentu bat osatzen duten fitxeroak alda daitezke, informazioa eguneratzen adibidez, eta beti ez dira aldaketa hauen fitxero historikoak gordetzen) izan daitezke. Era berean, dokumentu elektronikoen bi berezitasun dituzte: alde batetik orijinal eta kopia bereiztezinak ahalbidetzen duen erreproduzio aukera, eta bestetik jatorrizko dokumentua aldatzeko posibilitatea, hasierako eduki edo kontestuaren inongo arrastorik utzi gabe.

Gauzak horrela, dokumentuen preserbazioa ziurtatzeko arazo ugari daudela argi dago. Nahiz eta legeak hau guztia babesten saiatu, asko dago oraindik egiteko.

Bestalde, eta dokumentuen kontserbazio iraunkorren beharrari erantzuteko, soporteen iraupen fisikoa da arazoa. Dokumentu informatikoen soporteeak iraupen mugatua dute denborari dagokionez. Zenbaitzuek, kontserbazio baldintza onetan, 10 urtean jartzen dute (dokumentu magnetikoak) eta beste batzuek 100 urteraino (soporte optikoak) luzatzen dute. Hala ere, hau ziurtatu ahal izateko ez da denbora aski igaro.

Arazo nagusia hala ere, soporte fisikoaren iraupena baino, irakurtzearen posibilitatean dago. Dokumentu informatikoak, beti aldatzen ari den ingurune teknologikoa-
rekiko erabateko menpekotasuna dauka. Zahartze tekno-

logikoa, hondatze fisikoa bera baino azkarrago doa. Beti ere, edukia erreuperatzea errazagoa izango bada ere, hasiera bateko bide bera baino errazagoa izango da.

Inkognita asko badaude ere, guztia ez da beltza. Ohi-ko soporteetan dagoen hainbat ezagutza hondatzen ari dela jakina da. Hor ditugu antzinako testu zientifikoak, artxibo ofizialak, gutunak, argazkigintzaren hasierako bidrio plaketa negatiboak... onddo, intsektu, paper azido eta gizakiaren eraginez hondatzen. Bestalde, liburutegietako biltegietan erabili ez daitekeen, edo erabilpen murritza duen dokumentu asko dago ere; zorte pixka batekin eta kristalezko kutxa batean sartuak daudela, dokumentu hauen orri pare bat ikusteko aukera egon daiteke.

Honi erantzuteko medioak jartzen dituzte teknologia berriek. Orijinalen kopiak formatu digitalean egitea, egun errealitate bat da. Prozesu honen helburua inoiz ez da orijinala ordezkatzeko izango; kopia digitala egiteak ez du orijinala zaborretara botatzeko eskubidea emango. Aldiz, dokumentu horren momentu konkretu bateko egoera islatuko du kopia horrek. Era honetan, ikertzaileek bestela erabiltzeko modurik izango ez zuten dokumentuak eskuragarri jartzen dira Internet edo CD-ROMaren bidez esaterako.

Hala ere, oraindik gauza asko argitzeko daude. Informazio munduko profesionalak gaude alde batetik eta enpresa komertzialak bestetik. Erabaki gabe dago zeintzuk izango diren artxibo formatu egokiak, edo zein dokumentuei eman beharko geniekeen lehentasuna. Horretaz gain, honek guztiak diru kantitate handiak eskatzen ditu.

Arazo bat gehitu nahi izanez gero, esan beharra dago XX. mendeko hainbat ezagutza formatu digitalean besterik ez direla existitzen, eta horren guztiaren kontserbazio iraunkorra erabaki gabe dagoela.

Gaur egun martxan dauden digitalizazio prozesuak erabiltzaileei kontsulta errazteko pentsatuak daude eta ez preserbazioari begira. Hau da, antzinako liburu oso batzuen digitalizazioa CD-ROMean saltzeko edo web orri batean kontsultatu ahal izateko egiten da, baina ondare historikoko kudeatzaileek eskatzen dituzten medioak, herri batentzako inportanteak diren dokumentuak kontser-

batzeko beharrezko planifikazioak egitea eta diru kopuruak beste kontu bat dira.

Azken aldian zabaltzen ari den iritzietako batek bi bide jorratzen ditu gai honetan: alde batetik, kopia digitalak egitea, dokumentuen eskuratzea errazteko, eta bestetik, mikrofilmazioa, preserbaziora begira (100 urte irauten dituela ziurtatua dagoelako).

Web-a informazio iturri nagusia bibliotekari eta dokumentalistentzat

Gure eguneroko lanean informazio iturri nagusiak izan ditugu bibliografia eta datu baseak. Interneten zabal-kundearekin, sarean aurki dezakegu hainbat informazio. Gai guztiak aipatzea ezinezkoa denez, interesgarria iruditzen zaigu Bibliotekonomia eta Dokumentazioan berezitutako baliabideen aipamena egitea. Honetarako, Jaime Baró eta Xavier Baró Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko irakasleek *Documentación Digital* graduondorako prestatutako «La explotación de los recursos digitales de Internet» artikuluaen atal batean oinarritu gara².

- Direktorioetan ondorengoak aipa ditzakegu:

- <http://www.ucm.es/BUCM/byb/05.htm>: Madrilgo Unibertsitate Complutenseko Bibliotekonomia eta Dokumentazio Eskolak arlo tematikoetan sailkatuak dauden aukeratutako loturen bilduma.

- <http://www.nlc-bnc.ca/ifla/II/doc.htm>: IFLA erakundearen webgune honetan bostehun bat lotura aurki ditzakegu. Aipagarria da artikulua elektronikoen atala.

- <http://www.bib.ub.es/bub/www5/5bd6.htm>: Bartzelonako Unibertsitateko Bibliotekonomia eta Dokumentazio fakultateak egindako bilketa hau lan ona da benetan. Bibliotekonomia eta Dokumentazioarekin erlazio naturiko atal nagusietan antolatua dagoen web orri honetan, aipamen berezia merezi du dokumentu elektronikoen aipatzea gaiak.

- Formakuntza:

- <http://www.itcs.com/topten/libschools.html>: helbide honetan mundu mailan dauden Bibliotekonomia eta

Dokumentazio eskola eta fakultateen informazioa dator. Oso ongi osatua dago.

- Liburutegiak:

- <http://www.csic.es/cbic/webuni.htm>: CSICek egindako lan honetan, autonomia erkidegoen arabera antolatuta, Estatu espainoleko web orrien bilduma dago. Bertan unibertsitate liburutegi guztietarako sarrera daukagu.

- <http://sunsite.Berkeley.edu/Libweb>: munduko liburutegi guztien web orrien bilduma egitea helburua daukan gune honek, bereziki Estatu Batuetako bibliotekak eskuragarri jartzen ditu.

- <http://dspace.dial.pipex.com/town/square/ac940/eurolib.html>: Europako liburutegi publikoen bilduma aurki dezakegu hemen, estatuka antolatuta.

Bukatzeko

Azken urteotan liburutegi gehienak aldaketa prozesu bat jasaten ari dira teknologia berrien eragina dela eta. Ez dago dudarik Internetek garrantzi berezia duela honetan guztian. Gauzak honela, aldaketa hauek hiru norabidetan doazela esan genezake:

1. Hormarik gabeko liburutegiak. Hau da, erabiltzaileak informazio zentrorra bertara fisikoki joan gabe hari zerbitzuak emateko gai dena. Etxetik edo lantegitik, Internetek eskaintzen dituen medioak erabiliz, erabiltzaileak katalogoak kontsulta ditzake, dokumentuen kopiak eskatu, dokumentu osoen kontsulta egin, eta abar.

2. Paperik gabeko liburutegia. Ukitu ezin diren dokumentuen bildumekin osaturiko liburutegiak. Pentsatzekoa da sarean dabiltzan dokumentuek indarra har dezaketela apaletan sailkatuak daudenen kaltera. Zentro bateko fonda ez da bakarrik erositako edo/eta inprimatutako dokumentuez osatuko. Gehien aldatuko den zerbitzua bibliografia eta erreferentziazko informazioa izango da, erreperitorio iturri zabalagoa eta bariatuagoa izango duelarik.

3. Liburutegia dokumentu digitalen sortzaile. Liburutegia ez da bakarrik eta oinarrian baliabide elektronikoen

erabiltzaile, gero eta gehiagotan berak sortuko du informazio bibliografikoa. j

-
1. Liburutegi terminoarekin, publiko orokorrari erantzuten dioten liburutegiez aparte, espezialduak eta dokumentazio zentroak deskribatzen ditugu, termino bakar bat erabiltzeak irakurketa errazten duelako.
 2. Baliabide zerrenda luze baterako, ikus Merlo Vega, José Antonio; Angela Sorli Rojo: *Biblioteconomía y Documentación en Internet* (Madril: CINDOC, 1997) eta <http://milano.usal.es/rvaquero>